

MOTZAK URA ETA ZABORRAREN ZERGEK GORA EGINGO DUTE 2005EAN
GEHIGARRIA TXIKIBARREN · KULTURA LIBURU BERRIA KALERATU DU GOTZON GARATEK

Barren

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2004ko azaroaren 12a/XI. urtea/508. zkia

CARLOS REZOLA, ESPAINIAKO KULTURISMO TXAPELUNA

Gorputz perfektuaren bila

ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Kotxerako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

2005

Elgoibar, Alzola eta Mendaro

eko Gida Komertziala

BARREN

ASTEKARIA



Azkenengo gidan agertu ez bazinen
edo zure negozioko telefonoa
edo helbidea aldatu bada,
deitu **943 74 37 04** telefonora.

PARTIKULARREN TELEFONOekin!



Betiko kontuak

Hau ez da asteko albistia. Hau, ni naiz. Badaruat lau urte orrialde honetako baztar honetatik nere burutaziñuen berri ematen. Denbora honetan gauza asko pasau dia bai herrixan, bai Euskal Herrixan... ta tamalez, hasieran idazten nitxunei begira egon da gero, gauza gehixenek lehen bezela edo okerro jarraitzen dabela ikusteot: politikarixek euren joko zikiñekin jarraitzen dabe, aberatsak beti aberats da pobriak berdin. Euskal Herrixa Españan menpe, Batasunak ilegalizauta, presuak kartzeletan sakabanauta, Itoizko urtegixan da AHT-an proiektuak martxan... herrixan be alkatiak agintari huts izaten jarraitzen dau, Einbiouk legez kanpo, ertzañak larunbatero Mintxetako aparkalekuan herrixa “berotzera” noiz bajau zain, dendarixak merkadillua defenditzen, Gaztetxiak... gaztetxia? Lokalakin baña lanak hasi barik!! Ze ostixa da hau? Hauek ez dia asteko albistiak, aspaldiko kontuak dia.

Oiñ dala gitxi lagun batek idatzixetan beti protesta itxen nabala bota zian: klaro baietz! Boteriak badakaz bere bidiak propagandia eitxeko ta bere burua zuritzeko. Protesta itxeko gai geran bitxartian bizirik gaaz: horregaitxik daruaz Euskal Herrixak horrenbeste urte zutik! Oiñ arte esandakuak inor pentsatzen jartzeko balio izan badabez, pozik sentitzen naiz. Ni banixe ta herrikeri lekua lagatzeko tartia heldu dala usteot. Datozenen idazkixak gustora irakurriko ditxut, kritikuak badia batezere!

Hau ez da asteko albistia. Hau, aspaldiko kontua da.

Lorea Perez de Albeniz



“Horri ere etorriko zaio bere San Martin”

Azaroan ondo sartuta gaudela, asteak betozkoa jantzi dau, “Egiazko negua San Martinetan hasten” dio atsotitzak eta hala da, ilun, hotz eta euritsu aurkeztu jaku. Txerri askorentzat ere etorkizuna beltz, “horri ere etorriko zaio bere San Martin” ezaguna dogu. Baina zergatik tokatu jakue San Martin eta txerrixari horrelako esaera tragikoa? Zalantzak argitzeko Interneten sartu naiz, eta definizioa aurkitu dot:

“San Martin Frantziako gotzaia omen zan eta mirariak egiten zitxuan; bere omenez eguna ospatzeko tradizioak zioen txerrixak jan behar zirela. Hain zuzen, garai honetan negu guztirako baserrixetan jatekoa izateko, txerria hiltzeko ohiturarekin bat etorriko zen txerrixak jaten ospatu beharra”.

Interneteko orrialde horretan, aukera zegoen ohitura honi komentarioak egiteko. Hona hemen batzuk:

- Egi borobila da hori, denok sufrutuko dugu, aberatsak, behartsuak, politikak, zatarrak, denok!
- Txerri guztiak “erortzen” dira, lehenago edo beranduago.
- Egia da denoi iritsiko zaigula San Martin: egun bi-hankadun txerri asko dago baina zoritxarrez beranduegi “eroriko” dira!
- Txerri guztiei iristen zaie azken ordua baina txerri horrek dirua badu, bere azkena atzera dezake nahi duena, horra hor dirudunen eta pobreen arteko aldea... bizitza honetan gehiena bezala, ez da bidezkoa!
- Txerri gaixoak, horren goxoak eta zer erru dute iritzi guzti honetaz!

Txerrixari, gehixenei bezala, segitxuan ipintzen diogu “pertsonalitatea” eta hala, berehala askatzen ditxugu gure malaletxiak, ironia saltsarekin. Hilabetea gogorra dator eta ... (adibideak pil-pilean dagoz, Bush, Arafat...) atera kontuak.

Edurne Bilbao

asteako notiziario

Kexak	5
motZ MotZ	8
gehigarria	13
kiROLak	20

Aial hauek ez dira BARRENen editorrialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzeko diru eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, plurtaltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzeko du.

MERKATU TXIKIA, HERRIAK ERABAKI BEHAR DU

Manifestazioak, prentsaurrekoak, sinadura bilketa, merkadilloaren aldeko komunikatuak eta abar. Hauek dira Merkatu Txikiko komertzianteeek oraingo kokapenaren alde egindako ekintzak.

Baina alkate andreak eta bere Gobernuoko ekipoak prentsaurrekoen bidez erabaki dute merkadilloaren kokapena derrigorrez Sigma izan behar dela.

Herri honek argi eta garbi esan du behin baino gehiagotan Merkatu Txikia Plazan egon behar dela. Hala ere, herriaren nahia zein den oraindik ondo ez badute ulertu Udal Gobernuoek, ERREFERENDUMA egitea dute alternatiba garbiena.

ERREFERENDUMA da alkateak duen bidea erabaki honetan herria berarekin dagoen ala ez jakiteko.

ERREFERENDUMA da Merkatu Txikioek duten bidea herria beraien erreibindikazioarekin bat dagoen ala ez jakiteko.

J.H.G.
EHNA X-7119306-R

MENDAROTARROK EZ DUGU GURE IRAGANA MAITE

Seguru asko ez da inor hunkituko orain esan behar dudana irakurtzen duenean, tragediak telebistaz ikustera ohitu denak ohi duenez.

Egun hauetan hasi dira botatzen Garagartzan monjen ortuko pareta zaharraren zati bat: kalera ematen zuena. Huraxe zen Mendaron "parte zahar" itxura gordetzen zuen paraje bakanetakoa. Ehunka urteko historia kamioi naranja eta grisek eramango dute joan-etorri gutxi batzutan nik dakit non bete-lanen bat egiteko balioko duelakoan. Gero etxeak egingo dituzte hor eta jendea poztu egingo da Garagartzari martxa pixka bat emateko garaia bazela eta.

Urte gutxitan aspaldiko eraikuntza asko galdu ditu Mendarok; ez baina halabeharrez, Mendarotarrok hala nahi izan dugulako baizik (ez gara nonbait, iragana gogoratu zale): Zubi Zaharra, Agustinen konbentua, hainbat eta hainbat baserri, Linazasoroko irin fabrika,... orain berriz Garagartzako horma.

Etorkizunera zuzen ei goazen honetan (hala diote behintzat Eusko Jaurlaritzako iragarkiek) atzera non begiraturik ez zaigu geratuko gure herrian. Baina hori bai, progresua beti da progresu eta hau oso inportantea da European bizi nahi dugunontzat (nahiz eta zergatia oso ondo ez ezagutu).

Eta kontzientzia txarrik duenik inor baldin bada, "beste moduz bizi gera orain" esango dio ahopeka bere buruari, buelta eman eta loak hartu baino bi-hiru minutu lehenago.

Enetz Ezenarro
NAN 15386270

Urruzunoren begi ezkutua

Denbora



Denboran atzera joateko makinaren bila joan zitzaion aurrera denbora. Sortzaile zoroaren estereotipotik baino, langile grisarenetik zegoen gertuago, eta bere bulego ospelean metatzen zituen orduak, etxetik irten gabe joandakoen atzetik.

Haurtzaroaren ezaugarria, orbain bat bezala itsatsi zitzaion, bizitza gutzirako, eta hartara, egunak luze eta asteak motz zioazkion. Txikitatik zeukan egutegiekiko zaletasuna, denbora neurtu beharra, bilduma hark bere ibilbidea neurtuegi hesitzen zuela erreparatu gabe. Egin behar dugu, deitzen zioten, gauzatzeke ahaztutako grina guztiengatik.

Erabakiak hartzeko garaik ondasun apala utzi zion; hamaika asmo eta istorio bi baino ez. Bizitzan ez aurrera ez atzera, eta denborak, zain geratzeko imintziorik ez. Bere sormen bolada ilunen fritu soil gisa zetzan, denborak darama dena esaldiarekin hasitako orri zuri pila, zein zientziaz, poesiaz, filosofiaz zirriborraturiko koadernoak. Baina berriro, plan handiak errutina txikiekin kateatzen zitzaizkion, eta udazkenak basoak koloreztatu zituela igarri ere egin gabe joaten zitzaizkion neguak.

Bizitza erdi bat aurrera, konturatu gabe ia.

Mikel Artola

ASTEKARIA

BARREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala **ZUZENDARIA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIA** Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Amaia Erkizia **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **ZUZENTZAILEA** Unai Villena **KOLABORATZAILERAK** Esther Gurrutxaga, Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T..
AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik **INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.275 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855



Elgoibarko Udala, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.


DANOBAT


GOITI


ESTARTA


KEXAK

◆ Urasandiko bizilagun batek esan digunez, duela bi edo hiru aste **haizeak kartel bat puskatu zuen, eta hondakinak ez dituzte oraindik jaso**: “Duela hiru aste inguru, sekulako haize bortitza ibili zen, eta Urasandiko denda bateko kartela puskatu zuen. Kartel zatiak oraindik zelaian botata daude, jaso gabe”.

◆ Herritar batek honako kexa hau helarazi digu: “**Santa Klaratik Pilarreko ikastetxera dagoen bidean, N-634 errepidearen parez-pare dioana, oso arriskutsua da**. Hezetasan eta euriaren eraginez putzuak sortzen dira eta zorua oso labainkor egoten da hosto eta goroldioaren eraginez. Duela aste batzuk putzuan irristatu eta bi hortz apurtu nituen eta erori izan diren beste batzuk ere ezagutzen ditut. Antzerako ezbeharririk gertatu aurretik zerbait egin beharko litzateke, lurra garbitu edo lehenago egin zuten moduan “rejilla” bat jarri”.



◆ Herritar batzuk esan digutenez, **euria egiten duenean King-Kong azpiko lurra oso labainkor jartzen da**: “King-Kong azpiko lurreko baldosak oso zahartuta daude, eta euria egiten duenean, edo kalea garbitzen dutenean oso labainkor eta arriskutsu jartzen dira. Jende nagusi asko pasatzen da leku horretatik Zaharren Biltokira edo Eguneko Zentrora joateko, eta benetan arriskutsua egoten da. Mesedez, istripu larriren bat gertatu aurretik, zerbait egin dezatela”.


TXALOAK

◆ Urasandiko bizilagun batek, **txalo bat eman nahi die auzora igotzeko bidean, marra zuria pintatu dutenei**: “Urasandira igotzeko bidean, karrilak bereizteko marra zuria pintatu dute, eta eskertzekoa da. Hala ere, batzutan ezin izaten da norberaren karrila errespetatu, autoak gaizki aparkatuta egoten direlako, baina marra zuria pintatu dutenek txalo bat merezi dute”.



autonomoentzako eta mikroenpresetarako **mintegiak**

Deba Barrena
 azaroak 18
 ELGOIBAR
 Máquina Herramienta BHI (IMH)

Ordutegia: 18:00-20:00

Zer behar dut Internetera konektatzeko?

Posta elektronikoa, Web orrialdea, etab. eduki nahi badituzu, **merkatuan aurkituko dituzun aukerak eta horietatik egokiena aukeratzeko irizpideak** erakutsiko dizkizugu: banda zabalera, ADSLa, MODEM kablea, tarifa finkoa.

Sustatzaileak:



Antolatzailea:



Miramon
 Enpresa Digitala

Informatzeko eta lizena emateko:
902 252 595
www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com



Carlos Rezola, KULTURISTA

“Bizimodua bere menpe



Carlos Rezola (36 urte) da beheko argazkietan agertzen den mutil puska hau. Elgoibarren jaioa, 16 urterekin Donostiara joan zen bizitzera, eta bertan hasi zen kulturismoa praktikatzeko.

Txirrindularitza gogoko zuen 70 kiloko mutil argala izatetik giharrez jositako 100 kiloko kulturista izatera iritsi zen urte gutxiren buruan. 95ean Euskadiko Kulturismo Txapelketa irabazi zuen. Espainiakoa birritan eskuratu du, 2.000. urtean lehendabizikoz eta aurten azkenekoz. Europako Txapelketan 2.000. urtean seigarren postuan sailkatu zen eta aurten ere bertara joateko eskubidea irabazi zuen Espainiako txapelkun gisa, baina ez joatea erabaki du nekatuegi zegoelako.

Kulturismoan hasi zinenean ezaguna al zen Euskadin?

Ez, Donostian bertan egun baino gimnasio gutxiago zeuden eta banaka batzuk aritzen ziren kulturismoan. Lagun batek animatuta Antiguoko Gladium gimnasioan hasi eta berehala harrapatu ninduen kirol honek, batez ere, egindako lanaren fruituak berehala igarri nituelako.

Eta noiz hasi zinen txapelketetan parte hartzen?

Bilbon egiten ziren kulturismo txapelketak ikustera joaten ginen eta pixkanaka burua berotzen joan nintzen; nik ere taula gainera igo behar nuela, alegia. 93an Espainiako Iparraldeko Txapelketan estreinatu nintzen eta 3. postuan amaitu nuen.

Zer kategoriatan lehiatzen zara?

Super-alta deiturikoan, 1'80 metrotik gorakoan, nire altuera hain justu. Pisuak

ez du garrantzirik, baina 105 kiloren bueltan ibiltzen naiz txapelketa garaitik kanpo eta onenean nagoenean, berriz, 95 kilo inguru.

“Batzuetan 3 kilo okela jaten ditut eguneko, 7 edo 8 jatordutan banatuta”

Zein da kirol honen helburua, zer hartzen dute kontutan txapelketetako epaileek?

Azken finean muskuluek dute garrantzia kulturismoan eta gorputzaren perfekzio estetikoak bilatzen dugu, gorputzik ederrena. Epaileek ariketa edo postura zehatzak egin arazten dizkigute, baina ez dute muskuluen tamaina neurtzen, partehartzaileak ikusiz

elkarrekin konparatu baizik. Honako ezaugarriak kontutan hartzen dituzte: muskuluen garapena, definizioa eta kalitatea (grasa gutxi), gorputz atal guztien arteko proportzio-harmonia eta simetria, besteak beste. Epaimahaikideek zalantzak badituzte elkarren ondoan jarri eta alderatu egiten gaituzte. Polita izaten da eta ikusleek gure gorputzak ikusiz nola harritzen diren ikustea gogoko dut.

Zer maila du kulturismoak Euskal Herrian?

Bilbo aldean jende oso ona dago, baina gero eta gutxiago gara txapelketetan parte hartzen dugunak. Lehen gehiago ziren probatzen zutenak, baina baita azkar laga ere gogorregia irudituta. Txapelketetarako prestatzea oso gogorra dela onartu beharra dago. Edonor ez dago prest sei hilabeteko dieta jarraitzeko. Kirol egoista xamarra da kulturismoa, bizimodu guztia bere menpean

GORPUTZARI "KULTUA"

antolatza behartzen zaitu kulturismoak

antolatza behartzen baitu. Gainera, lan eta sakrifizio guztia lau egun eskasetarako da. Muskuluen definizioa muturreraino eramaten dugu, egoera ez da naturala gorputzarentzat, eta denbora tarte oso motzean mantenenez goreneko sasoi puntuan.

Diru etekin ateratzen al da kulturismotik?

Dirurik ez, sari bakarra norbere satisfazioa eta ispilura begiratzean honek itzultzen dizun irudia da. Dena dela, jendeak hor nabilela jakiteak eta nire garaipen berri izateak ilusioa ematen dit eta animatu egiten nau.

Gimnasioa zure bigarren etxea izango da, ezta?

Ez pentsa. Astelehenetik ostiralera joaten naiz, baina ordubeteko saioak izaten dira; motzak baina gogorrak, egunero muskulu talde konkretu bat landuz.

Eta zer jan behar da zu moduan egoteko?

Proteina kantitate itzelak: haragi gorria, arraina, arrautzen zuringoa, e.a. Batzuetan 3 kilo okela jaten ditut eguneko, 7 edo 8 jatordutan banatuta. Bestalde, entrenamenduetarako beharrezko energia karbono-hidratoetatik lortzen dugu. Honez gain, bitamina konplexuak, aminoazidoak, koipe erretzaileak e.a. hartzen ditugu. Nutrizioa pisuak jasotzea bezain garrantzitsua da. Maiatzaren 23an izan zen Espainiako Txapelketa prestatzeko, adibidez, Errege Eguneko bazkariaren ostean hasi nuen dieta.

Zure gorputzeko zer ataletaz zaude gusturen?

Zangoetatik orokorrean. Nire ezaugarri nagusia simetria eta proportzio orekatuak izatean datza: gerri estua, sorbaldak zabalak, zango zailduak... Horiek dira ni baino altuagoen aurrean ditudan abantailak, ikusgarriagoa bilakatzen bainaute. Osterantz ez nieke irabaziko.

"Sari bakarra norbere satisfazioa eta ispilura begiratzean honek itzultzen dizun irudia da"

Eta zein da asko saiatu arren atera ezin dezakezun gihar hori?

Besoak. Aurten asko hobetu ditudan arren, gehiago kostatzen zait besotako giharrak garatzea.

Edozein izan al daiteke kulturista?

Edozeinek landu eta hobetu ditzake muskuluak entrenatuz, baina edonoren gorputza ez dago kulturista izateko diseinatu, nolabaite esatearren. Ondare genetikoak erabakitzen du hori.

Kulturistak ez al zarete nartzisista xamarrek?


Gogoko dut nire gorputza begiratzea, batez ere, ariketak egin ondoren emaitzak ikusteko, baina ez nago uneoro ispiluari begira. Gimnasio lanaren fruituak ikusteko bakarrik da ispilua. Badaude batzuk euren gorputzaz harro daudela erakustea gustatzen zaienak, baina konpetizioko kulturistak ez dira horrelakoak izaten normalean.

Jendea begira geratzeak ez al dizu erreparorik ematen?

Ez, jadanik ohitu egin nahiz. Hondartzara banoa normala da jendeak begiratzea, handia bainaz eta atentzioa deitzen dut.

Gogoko al duzu kulturismoa egiten duten emakumeen gorputza?

Kirolari gisa izugarri miresten ditut, gizonezkoen meritu bikoitza baitute, baina fisikoki emakume oso gihartsuek ez naute erakartzen.



Uraren eta zaborraren gaineko zergak gora egingo dute 2005ean

Ura %9,57an eta zabor bilteta %17,38an garestituko dira

Udal Plenoak adostu zuenez, datorren urterako ordenantza fiskalak, batz besteko %3an garestituko dira. Gorakada hau, 2005erako aurreikusten den KPI (Kontsumo Prezioen Indizea) igoeraren azpitik dago, izan ere, %3,2ko gorakada jasango baitu honek. Hala ere, badaude KPI indizea baino gehiago garestituko diren zergak, besteak beste, ura eta zabor biltzea.

EAJ, EA, eta PP alderdien aldeko botoekin, uraren gaineko zergak %9,57an igotzea onartu zuen Udal Plenoak. PSE-EE eta EB alderdiek honen kontrako botoa eman zuten. Era berean, zabor biltetaren gaineko zergak %17,38an garestitzea onartu zuten. Bestalde, EAJ eta EA alderdien baiezko botoekin, Udal Kirol Patronatuaren erabilera tasak %5ean igotzea onartu zen.

Gauzak honela, etxeko erabilpenerako m³ urak 0,51 euro balioko ditu, beti ere, 20m³ baino gutxiago erabiltzen denean. Saneamendurako erabilitako urari



dagokionean, 2,44 euroko koste finkoa ordainduko da hiru hilabeteetan behin.

Zabor biltetari dagokionean, merkatal ekintzarik ez duten etxebizitza eta lokalek 70,92 euro ordaindu beharko dituzte zerbitzu honen truke. Komertzioen kasuan langile kopuruaren arabera ezarriko da zabor bilteta zerbitzuaren prezioa.

Igoeraren arrazoiak

Udal Plenoan azaldu zutenenez, uraren eta zaborraren gaineko zergak ez ditu Udalak erabakitzen. Ur Partzuergoak ezartzen du herri bakoitzak zerbitzu honen truke ordaindu beharreko diru kantitatea, eta Debabarrenako Mankomunitateak berriz, Udal bakoitzak zabor biltetaren truke ordaindu beharrekoa.

San Roke auzoa eta Santa Ana kalea lurrazpiko pasagune batek lotuko ditu

Udalak obra hauek egiteko lehiaketa deialdia egin du



Elgoibarko Udalak Santa Ana kaleko Errotondatik Elgoibar BH Instituturaino joango den lurrazpiko pasagune bat egiteko lehiaketa deialdia egin du. Obra honen aurrekontua 803.932,52 eurokoa da, baina lehiaketara aurkeztuko diren enpresak, kantitate hori murrizten saiatu beharko dira. Obrak hasten direnetik, lau hilabeteke epea aurreikusten da bukatzeko, beraz, datorren urterako amaituta egongo da.

Lurrazpiko pasagune hau trenbide azpitik joango da, Bilbo-Donostia norabideko 54,2 kilometroan hain zuzen ere. Honen ondorioz, ingurune honetako trafikoak zenbait aldaketa jasango ditu.

Bestalde, ingurunea indarberritzeko azpiegitura garrantzitsua izango da lurrazpiko pasagune hau, izan ere, trenbidea eta autopista azpiko guneen garapena bultzatuko baitu. Gune honetan merkatu libreko 150 etxebizitza inguru eraikitzeko asmoa dago.

Bestalde, lurrazpiko pasagune honek San Roke auzorako zuzeneko sarbidea ahalbidetuko du. Honela, Sigmako zubitik San Rokera joan nahi duten autoek ez dute Trenbide kaletik pasatu beharko, eta ingurune horretako trafikoa gutxitu egingo da. Era berean, Mintxetara edo Institutura doazenentzako irtenbide garrantzitsua izango da.

Etorkizuneko erreminta makinak egiteko Europa mailako proiektua jarri du martxan Fatronik-ek

Makina erremintaren garapenean oinarritzen den Fatronik Zentro Teknologikoak, etorkizunean izan daitezkeen aldaketei aurre egiteko proiektu bat jarri du martxan Europa mailan. Proiektu honen helburua teknologia aurreratua erabiliz etorkizuneko erreminta makinak egitea da, bezeroen beharrei erantzuna eman ahal izateko, eta bide batez, Asiako eta Ameriketako kompetentziatik bereizteko. Proiektu honen bidez gutxiago kutsatzen duten makinak egingo dira, erabiltzeko errazagoak eta enpresen produkzioa handitzen lagunduko dutenak.



Europako 25 bazkidek hartuko dute parte (enpresak, inbestigazio zentroak eta unibertsitateak). Fatronikekin batera, Kutxa, Tekniker eta Danobat enpresek ere hartuko dute parte. 60 langile arituko dira lanean, eta 24 milioi euroko aurrekontua dauka.

Txileko Hezkuntza Ministerioko pasantia taldeari ongi etorria egin zieten IMHn

21 zuzendari txiletarrek “Gaitasunen bidezko kudeaketa kurrikularra eta administrazio deszentralizatua” ikastaroa egingo dute hilabetez IMHn. Urriaren 25etik azaroaren 19ra bitartean, CONTESeK (IMHko nazioarteko enpresak) kudeatutako ikastaroa egingo du Txileko 7. zuzendari promozioak, beraien ikastetxeak kudeatzeko teknikak lantzeko.

Urtero Txileko 500 irakasle eta zuzendari inguru aukeratzen dira atzerriko

hobekuntza-ikastaroan parte hartzeko. Helburua, hezkuntza kalitatea hobetu eta garapen profesional iraunkorra egitea da.



Joxepa Arrillaga eta Rita Elizgarai Merkatu Plazako zozketaren irabazleak

Hilabete honetan bi lagunentzako afari bi zozketatu dituzte Merkatu Plazako dendariak, eta irabazleak Joxepa Arrillaga eta Rita Elizgarai izan dira, beraz, Ibai Ondo jatetxean afaltzeko aukera izango dute. Zorionak!

Errosario jaietako zozketako irabazleak agertu dira

Jose Ignacio Jauregi (150 euro), Javier Viteri (100 euro) eta Gloria Alvarez (75 euro) izan dira Errosario jaietan eginiko zozketaren irabazleak. Saria erosketa txeketan jaso dute, eta Errosario kaleko komertzioetan gastatu beharko dute. Zorionak!



Elgoibarko BH Institutuak kudeaketaren Zilarrezko Q saria irabazi du

Euskalit (Kalitaterako Euskal Fundazioa) erakundeak osatzen duen ebaluatzaile talde batek Elgoibar BH Institutuaren ebaluazioa egin du, eta Zilarrezko Q saria eman diote. Eusko Jaurlaritzak 400 puntu gainditzen dituzten erakundeei ematen die sari hau. Sari hau kudeaketa mailaren errekonozimendua da eta etengabeko hobekuntzan jarraitzeko motibagarria da Elgoibar BH Institutuarentzat. Azpimarratu behar da Elgoibar BH Institutua dela sare publikoan Euskaliten aurkeztutako memoria euskaraz idatzi duen lehenengoa.

Elgoibarko BH Institutua 1996. urtean hasi zen urratsak ematen kalitatearen inguruan irakasle talde bat arlo honetan formatuz eta inkestak erabiliz bere ikasleen asebetetze maila neurtzeko. Eskolan prozesuen bidezko kudeaketa sistema indarrean jarri zen, 2000. urtean ISO 9000 ziurtagiria lortu zelarik.

Sari honek bestalde, eskolaren 50. urteurrenko ospakizunarekin bat egin du, 1954. urtean sortu baitzen orduko “Escuela de Aprendizaje industrial” izenarekin eta ordutik hona, urtez urte egindako lanaren eta ibilbidearen aintzatespena da.

“Bezeroentzako arreta” hitzaldia Txankakuaren eskutik

Txankakua Zerbitzu eta Merkatarri Elkarteak eta Gipuzkoako Merkatarrien Ganbarak antolatuta, “Bezeroentzako arreta” izeneko hitzaldia izango da datorren azaroaren 16an, Kultur Etxean, eguerdiko 14:00etatik 16:00etara. Programaren asmoa, bezeroentzako arreta-zerbitzuarekin zerikusia duten eremu guztietan hobekuntzak ezartzea da. Interesatuak, 943 74 73 01 telefonora deitu dezakete.

Aurten, iaiz baino 24 lagun gehiagok eman dute izena Elgoibarko euskaltegietan euskara ikasteko

ZELAN ANIMATU DAITEKE EUSKARAZ EZ DAKIEN BAT EUSKARA IKASTERA?



ZURIÑE IRAZOKI
26 urte, irakaslea

Bakoitzak dauzkan pentsamenduak albo batera utzita, lanerako beharrezkoa delako animatuko nuke euskara ikastera. Gaur egun toki guztietan eskatzen dute, eta beharrezkoa da.

FLORENTINO ORTEGA
61 urte, jubilatua

Gazteagoa izango banintz, animatuko nintzateke ikastera. Hemen bizi izanda, euskaraz hitz egitea garrantzitsua da, eta gainera lanerako toki guztietan eskatzen dute.



ESPERANZA FOLGOSO
65 urte, etxekoandrea

Hemen bizitzeko beharrezkoa da, eta merezi du ikasteak. Dagoeneko ez daukat burua horretarako, baina gustatuko litzaidake jakitea. Jantzi bat bezala euskara erosi ahal izango balitz, nik gustura erosiko nuke.

EULOGIO MANCEBO
41 urte, udaltzaina

Elebakarra denak begi batetik bakarrik ikusten du, eta elebidunak bi begietatik. Ikuspegi bikoitzarekin edo zabalagoarekin ikusteko euskaraz jakitea oso garrantzitsua da.



SUSANA GURRUTXAGA
40 urte, Udal Euskaltegiko zuzendaria

Bertako hizkuntza delako. Beste herrialde batera joaten garenean ere, bertako hizkuntza ikasten dugu. Integrazteko eta norberaren burua bertakotzeko garrantzitsua delako.

AMAIA LARRAÑAGA
43 urte, AEKko zuzendaria

Euskara jakiteak zenbat alde on dituen erakutsiz. Seme-alaben heziketan parte hartzea, lanpostuetan aukera gehiago izatea... Zenbat eta hizkuntza gehiago jakin hobe, baina lehenengo etxekoa.



Iriondo TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 · Tel: 943 74 00 15



Bulkatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

Europako e-learning sarietarako izendatu dute IMH

IMHk eskaintzen duen Fresatzeko Makinetako Mekanizazio Prozesua ikastaroa “E-learning Awards 2004” edizioko lehenengo 100 hautatuen artean sartu da. Aurkeztu diren 1021 lanetatik, European Schoolnet-ek lehen hautaketa egin du, eta hemendik aterako da irabazlea. European Schoolnet, Europa eta nazioarte mailan hezkuntza munduaren barrutian e-learning garatzen duten



Europako 26 Hezkuntza Ministerioz osatutako elkarte da. IMHk bi urte daramatza e-learning ikastaro teknikoak internet bidez eskaintzen. Ikastaro hauen edukiak lanbide heziketa-teknikoari buruz esperientzia zabala duten irakasle teknikoek garatu dituzte eta “egiten ikasteko” pentsatuta daude. Sari banaketa Pragan, Txekiar Errepublikan egingo da azaroan.

Institutuko ikasleek Iparraldera egin zuten bidaia



Euskalkiak lantzen ari direla aprobetxatuz, Iparraldera egin zuten bidaia Elgoibarko Institutuko ikasleek. Isturitzeko leizeak bisitatu zituzten eta azalpen guztiak behe-nafarreraz eman zizkieten. Horretaz gain, Ustaritzeko Lapurdi Zentroan hitzaldi bat izan zuten, Iparraldeko Literaturan Larresoroko seminarioak izan duen eragina aztertzeko. Daniel Landart idazle ospetsua lagun zuelarik, P. Txarriton euskaltzainak eman zuen berbaldia.

Joseba Iriondo kazetariak hitzaldia eskaini zuen Elgoibar BH Insitutuan

Joseba Iriondo ETBko kazetariak Elgoibarko Institutuko batxiler eta goi mailako zikloetako ikasleentzat hitzaldia eman zuen bertako areto nagusian joan zen azaroaren 5ean. Kazetari izateaz gain, Hotel Palestina liburuaren egilea da Joseba Iriondo, eta urte askotan Ekialde Erdiko korrespentsal lanetan aritu izan da. Hitzaldian Afganistan eta Irakeko joan-etorrietan bizitako esperientziei, anekdotei eta egoerei buruz jardun zuen ordubetetz luze eta zabal. Bukaeran ikasleen galderak erantzun zituen.

Ikastolako ikasleek BARREN bisitatu zuten

Gure aldizkariaren funtzionamendua ezagutzeko asmoz, Ikastolako ikasleek, BARREN bisitatu zuten joan zen ostiralean, azaroaren 5ean. BARREN astero-astero nola egiten dugun azaldu ostean, beraien galderak erantzun genituen. Gure aldizkarira etorri aurretik, El Diario Vasco egunkarian izan ziren.



Herri Eskolakoak Finalista Egunean izan ziren

Joan zen urriaren 24an Idiazabalen ospatu zen Finalista Egunean izan ziren Herri Eskolako ikasle eta gurasoak. Mendi itzuli polita egin zutelako kontatu digute, eta 22 lagunek jaso zuten diploma. Hurrengo mendi irteera azaroaren 21ean egingo dute, Karakatera.



AURTENGO IKASTURTEAN IAZ BAINO 24 LAGUN GEHIAGO MATRIKULATU DIRA

142 lagun ari dira euskara ikasten Elgoibarko euskaltegietan

Elgoibarko euskaltegietan, AEK eta Udal Euskaltegian, 142 lagunek eman dute izena aurtengo ikasturtean. Azken urteotako beheranzko joerak, badirudi aurtengo ikasturtean apur bat gora egin duela, eta iaz baino 24 lagun gehiago hasi dira euskara ikasten.

Honetaz gain, talderik osatu ez delako, 20 ikasle gelditu dira matrikulatu ezinda.

Azken hiru urteetan matrikulazio kopurua antzerakoa zen, ez zen aldaketa handirik izan, joera beheranzkoa zen eta euskara ikasle kopurua ez zen 140ra iristen. Hala ere, duela lau urteko datuei begiratuz gero, 158 ikasle matrikulatu zirela ikusten dugu. Badirudi beraz, euskararen egoera apur bat hobetu dela aurtengoan. Beheko taulan jaso ditugu aurtengo matrikulazio eta azken urteotako datuak, matrikulazioen eboluzioa ikusteko.



MATRIKULAZIO DATUAK

	00-01 IKASTURTEA	01-02 IKASTURTEA	02-03 IKASTURTEA	03-04 IKASTURTEA	04-05 IKASTURTEA
BEHE MAILA	89	63	53	45	64
ERDIKO MAILA	10	22	26	40	32
GOI MAILA	59	49	36	33	46
GUZTIRA	158	134	115	118	142
TALDERIK GABE		11	5		20

* Datu hauek ikasturte hasierakoak dira



URKIDI AHOLKULARITZA

KONTABILITATE
LAN
FISKAL

Kalamua, 12 · ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91



ASEGURUAK



MEKANOSA

Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

txiki?

BARREN

LHko eta DBHko ikasleekin egindako 13. gehigarria

“Kuskuxeroak” saioko txantxa batek ireki zizkion Nerea Alias (Anoeta, 1984) telebistako ateak.

Orain ‘Zuzen’ atala aurkezten du ETB1eko ‘Betizu’ saioan. Oker maskota saltsero eta adarjotzailea lagun duela Euskal Herriko haurren merixenda ordua alaitzen du egunero bere leihotik.

Nerea Alias
Telebista aurkezlea

Nola iritsi zara 20 urterekin telebistako aurkezle izatera?

Ikasketak laga eta garagardotegi batean hasi nintzen lanean. Han nengoela, lagunek ‘Kuskuxeroak’ saiorako txantxa bat prestatu zidaten duela urtebete pasatxo. Telebistatik bota eta hurrengo egunean aurkezle izateko ‘casting’ bat egiteko deitu zidaten. Bi egunetara berriz deitu zidaten aukeratua izan nintzela esanez.

Telebistan jarraitzeko asmorik bai?

Telebistaren mundua aldakorra da, gaur hemen eta bihar... auskalo. Momentua aprobetxatu behar da. Betidanik gustatu izan zaidana egiteaz gain, lantalde eta langiro polita osatu dugu eta primeran aritzen gara.

Nolako da “Oker”, zure lankidea?

Oso dibertigarria da, saltsa eta bizitasuna ematen dio saioari. Izenak dioen moduan bihurria eta gaizto xamarra da. Inor esatera ausartzen ez den gauzak esaten

ditu eta gehienetan ni nago bere txantxen jomugan.

Panpinazko txakur batekin hitz egiteak ez al dizu traumarik sortzen?

Hasieran pixka bat kosta zitzaidan, baina ohitu egin naiz. Paperean sartu eta pertsonaiekin berba egiten dut, ez panpinazko txakur batekin.

Zer da saiotik gogokoen duzuna?

Haurrekin zuzenean edo telefonoz berba egitea eta gidotik atera eta Okerrekin inprobisatzea. Noraino iritsi naitekeen neurtzea gogoko dut. Haurrak naturalak dira, egia esaten dute eta zerbait gustatzen ez zaienean bota egiten dute.

“Txandapasa” lehiaketan gaztetxoek hizkuntza gaitasuna neurtzen duzue. Prestatuta al dator gaur egungo gazteria?

Bai, egungo gazteria bizi-bizia dator, neroni behintzat harrিতuta geratzen naiz egunetik egunera.



MOTX-MOTXIAN

Zein da zure ‘Alias’-a lagunartean zaudenean?

Ez daukat, Nerea soilik.

Haserre jartzen zaitu?

Euriak.

Eguna alaitzen dizu?

Eguzkiak.

Beldur bat?

Armiarmak.

Zeri egiten dio ‘txandapasa’ Nerea Aliasek?

Jendearen “rollo” txarrari.

Txikitari ikusten zenuen marrazki bizidun

gustukoa?

Dragoi Bola.

Gustuko toki edo txoko bat?

Euskal Herriko edozein herri txiki.

Mutil batengan gehien estimatzen duzun dohaina?

Umiltasuna.

Zer abilezia gustatuko litzaizuke edukitzea?

Denbora aurreratu eta atzeratzekoa.

Doraemon katu kosmikoa ala Shin Chan?

Doraemon.

Shin Chan moduko seme bat atereaz gero zer?

Zuzentzen saiatu behar, zer erremedio!

“Bizi-bizia dator egungo gazteria”

IRAKASLEARI AZTERKETA

IBON IRASTORZA

LHKO IRAKASLEA



- 1 Zein motatako ikaslea izan zinen?**
Ez dut arazorik izan, mugitua eta urduria izan arren.
- 2 Piper asko egiten al zenuen?**
Institutoan gutxi. Unibertsitatean aukeraketa egiten nuen, zein klase ziren interesgarriak eta zeintzuk ez.
- 3 Ikasle garaian gustukoen zenuen ikasgaia?**
Ingelesa nuen gustukoena. Soinketa eta plastika ere.
- 4 Irakasle gogorra al zara?**
Ez dut uste gogorra naizenik. Gauzak zuzen egitea gustatzen zait.
- 5 Zigortzen al dituzu ikasleak?**
Bai, beharrezkoa denean.
- 6 Irakasle ez bazina?**
Kazetaria, edo kirolarekin zerikusia duen zerbeit.
- 7 Ikasleekin ikas-bidaira joango al zinateke?**
Bai, arazorik gabe.
- 8 Galderaren bat erantzuten ez badakizu?**
Ez daukat inongo arazorik ez dakidala esateko. Ikasleek dena dakigula uste dute, baina ez da horrela.
- 9 Etxeko lanak egiten ez dituztenean zein aitzakia jartzen dizute?**
Denetarik. Asteburuan kanpoan pasatu dutela, edo eskolan ahaztu zaizkiola...

NOLAKO ENBORRA... HALAKO EZPALA



ARRATE USATORRE
ama

GALDERAK

1. Telebistako zein programa duzu gustukoen?
2. Realala ala Athletic?
3. Loteria tokatuz gero, zer egingo zenuke?
4. Zer eskatuko diozu Olentzerori?
5. Zer da lo hartu aurretik egiten duzun azken gauza?
6. Batere gustatzen ez zaizun janari bat?
7. Zein famaturen autografoa edukitzea gustatuko litzaizuke?
8. Zein izan da zinean ikusi duzun azken pelikula?
9. Ikustezina bazina zer egingo zenuke?

- 1 Siete Vidas
- 2 Bat aukeratzekotan Realala, baina ez naiz futbolzalea
- 3 Bidaiatu
- 4 Mikrouhina puskatu zait, ea berria ekartzen didan!
- 5 Irakurri. "La cuenta numerada" bukatu berri dut
- 6 Tripakiak
- 7 Richard Gere aktorearena
- 8 Buscando a Nemo
- 8 Alaben artean sartu, zeri buruz hitz egiten duten entzuteko



MIREN VIÑE
alaba

- Shin Chan **1**
- Realala **2**
- Jostailu mordoia erosi **3**
- Disc-man bat **4**
- Irakurri. Orain "Mari Sorgin eskolan" irakurtzen ari naiz **5**
- Arraina **6**
- Fran Perearena **7**
- Garfield **8**
- Ahizpari joastailuak lapurtu **9**

Txiki inkesta

Zer da grabitatea?

10 urte Gorka Bereziartua,

Lurrera bultzatzen zaituen indarra da grabitatea.



10 urte Nerea Gurrutxaga,

Pertsonak zein gauzak hegan ez egitera edo toki batera igo eta lurrera erortzera behartzen zaituen indarra.



10 urte Ane Astiazaran,

Lurrean mantentzeko derrigorrez behar den indarra.



10 urte Josu Mujika

Zeruan ez dago grabitaterik, horregatik egiten dute hegan astronautek.




Zein da telebistako programarik gustokoena?

Ainhitze Etxeberria 10 urte



Gehien gustatzen zaidana "bere biziko espiak". Abenturak eta espazioko marrazki bizidunak edo programak gustatzen zaizkit.

Aitor Alberdi 10 urte



Niri "vaya semanita". Seme bata etarra delako eta bestea txaraina.

Maialen Solabarrieta 10 urte



"Goenkale". Batez ere, jende barregarri asko ateratzen dalako eta misterio piskat ere baduelako.

Maria Barrenetxea 10 urte



Niri "goenkale" gustatzen zait. Umore eta dibertsio handia duelako.

Paristik natorren *artista bat naiz ni...*

L.H. 6. maila
Pilar Ikastetxea



Bertsokak: GALTZAGORRIRI

Galtzagorri, galtzagorri
Zure bisita izan da dibertigarri,
Zure ipuinak irakurriz,
Ikasi dugu ugari.

Galtzagorri, Galtzagorri
Eskertzen dizugu zuri
Eta laga diguzun altxorrari
Pasatutako denbora maitagarri.


Galtzagorri, Galtzagorri
Zu izan zara gidari,
Hainbat jolas, antzerki barregarri,
Aurkeztu diguzu denoi.

Galtzagorri, Galtzagorri
Gurera berriz etorri
Gure atea daude zabalik
Zure bisita izan da aberasgarri.




lehiaketa lehiaketa lehiaketa lehiaketa lehiaketa lehiaketa

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzunak BARREnera ekarri edo
posta elektronikoz bidali:
barren@topagunea.com



Aurreko lehiaketako irabazlea: **Elena Lariz**

Erantzuna:

Izen abizenak:

Telefona:

EUSKARAZKO liburu sorta

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.



OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Mendaroko Udala	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gazte Informazioa	943 74 14 61

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

Farmazia - okindegia

EGUNEZ

12	Ibañez
13	Bidasolo
14	Bidasolo
15	Etxeberria (Santa Ana kalean)
16	Fernandez
17	Yudego
18	Zabaleta
19	Etxeberria (Errosario kalean)

GAUEZ

Ibañez
Bidasolo
Bidasolo
Etxeberria
Fernandez
Yudego
Zabaleta
Etxeberria

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,

Herriko enparantza 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

14 igandea Ibarrenea

ELGOIBAR

SIGMA ● ———— ● ARRIAGA

SIGMA - ARRIAGA

8:00	8:10
9:25	9:35
11:10	11:40
11:20	11:50
12:10	12:40
12:20	12:30
13:10	13:20
13:20	13:30
18:20	18:30
19:10	19:20

ARRIAGA - SIGMA

8:10	8:20
9:55	10:05
11:10	11:20
11:40	11:50
12:10	12:20
12:40	12:50
13:10	13:20
18:10	18:20
19:00	19:10

URTEA ZORIONTZEKO GABON-POSTAL LEHIAKETA



BALDINTZAK:

Nork: DBH eta Batxilergoa ikasten duten gazteak. 2 maila:

- A maila: DBH
- B maila: LOGSEko ikasleak

Neurria: 15x10zm. (Bakoitzak nahi beste lan aurkeztu ahal izango ditu).

Nola: Diskete edo paperean. Erlieberik gabe. Lanak aurkezteko 2 kartazal entregatuko dira, batean datuak eta bestean postala.

Non: Kultur Etxeko Kultura zerbitzuan (8:00-14:00) edo arratsaldean Gazte Informazio Bulegoan (16:30-20:00)

SARIAK:

A maila

1. saria: Argazki kamara digitala.
2. saria: Euskal CD eta liburu sorta.

B maila

1. saria: Diskman-a.
2. saria: Euskal CD eta liburu sorta.

EPEA: 2004ko azaroaren 23a.





Gaur arratsaldean inauguratuko da Kultur Etxean Anton Urreistiren pintura erakusketa, eta datorren azaroaren 28ra arte egongo da ikusgai. Mutrikun jaioa den arren, Anton Mendaron bizi da gaur egun, eta oraindik artista famatua ez den arren, bere koadroak gero eta ezagunagoak dira. Txikitatik gustatu izan zaio margotzea, eta familiakoek animatuta antolatu du erakusketa. Bertara hurbiltzen direnek, oleoan eginiko 30 koadro inguru ikusteko aukera izango dute.

“Nire bizitzako zati bat da pintura”

marratzen dut. Pintzela eta espatula erabiltzen ditut margotzeko. Ez daukat estilo konkreturik, nahiko modu librean margotzen dut. Bestalde, koloreak esplotatzen saiatzen naiz, argiekin jolastuz bizitasuna emanez.

■ Non aurkitzen duzu margotzeko inspirazioa?

Edozein tokitan. Gutxien espero dudan momentuan etortzen zait koadro bat margotzeko inspirazioa. Momentu horretan burura etortzen zaidana paperean apuntatzen dut, eta gero ideia hori hobetzen eta sakontzen saiatzen naiz.

■ Zer marratzen duzu?

Denetarik. Batzutan paisaiak, beste batzutan erretratuak, eta baita abstraktuak ere. Koadro batzuk buruz egiten ditut, eta beste batzuk argazkietatik kopiatu. Azkenaldian hiriburuak margotzen aritu naiz, eta irudi horiek National Geographic aldizkaritik atera ditut. Argazki izugarriak dira, eta hobetzen saiatzen naiz.

■ Gustuko duzun margolariren bat?

Ignacio Zuloaga izan da handiena. Luziano elgoibartarra ere asko gustatzen zait. Umea nintzela, Luziano Mutrikura etortzen zen bertako kaleak irudikatzerara, eta berari begira gelditzen nintzen. Gaur egun, Begiristain ondarrutarra ere oso ona iruditzen zait.

■ Zenbat denbora behar da koadro bat margotzeko?

Ezin da esan. Lehiaketetan adibidez, lau orduetan koadro bat egiten dut, eta estudioan, 6 hilabete pasatu ditzaket.

■ Bizi al daiteke margolari izatetik?

Ez. Koadroak saldu arren, ezin da gastatutako diru guztia atera. Koadro batzuk ez daukate preziorik, ezin dira ordaindu.

ANTON URREISTI

■ Nola hasi zinen margotzen?

Umetan hasi nintzen marrazten. Eskolan ondo moldatzen nintzenez, akuarelak egiten hasi nintzen. Irakasle guztiek esaten zioten amari margotzeko esku ona neukala, eta Arte Ederretan apuntatzeko, baina garai hartan lan asko zegoen, eta dirua behar zenez, lanera bidali ninduten.

■ Non ikasi zenuen margotzen?

Autodidakta izan naiz, ez dut irakaslerik eduki, ezta klaserik jaso ere. Liburu asko irakurri ditut, eta hortik ikasi dut. Hala ere, berezko zerbait eduki behar da, teoria eta praktika oso desberdinak baitira.

■ Zure lehenengo erakusketa al da?

Ez. 1985ean Mutrikuko beste artistekin batera egin nuen nire lehenengo erakusketa. Iaz, Mendaroko udaletxean egin nuen beste bat, eta oso ondo joan zenez, Elgoibarren antolatzea pentsatu nuen. Familiakoek animatu ninduten koadroak erakustera.

■ Ofizioz ala afizioz margotzen duzu?

Afizioz. Gerriko arazoak nituela-eta, lana utzi nuen. Denbora nonbaiten eman behar nuenez, berriz ekin nion marrazteari. Duela 7 urte inguru hasi nintzen serioki.

■ Zer da zuretzako pintura?

Nire bizitzako zati bat da. Aurikularrak jarri, eta musika entzunez marrazten dut. Mundutik ihes egin, eta koadro barrura sartzen naiz. Hori da nire sekretua, koadroaren barruan sentitzea. Denbora asko eskaintzen diot pinturari, eta askotan emozionatu egiten naiz.

■ Zein teknika eta estilo erabiltzen dituzu koadroak margotzeko?

Akuarelak egin ez hasi nintzen, baina gaur egun oleoan

“Pintatzerakoan koadro barrura sartzea da nire sekretua”

New Yorken azken 40 urtetan ikusitakoarekin osatutako kronika-liburua idatzi du Gotzon Garatek

Istorio garratz eta gordinak aurkitu ditu etxe orratzen hirian

Gotzon Garatek New Yorken 40 urtetan zehar ikusitakoak biltzen dituen ‘New Yorkeko kronika beltza eta beste kontu periferiko batzuk’ kronika-liburua argitaratu du, Elea argitaletxearen eskutik. Deustuko unibertsitatean Euskal Filologiako irakaslea den elgoibartarrak “Counselling Center” aholkularitza zentroan igaro ditu azken 40 urteetako udako oporrak, behar duen edonori gomendioak eta laguntza ematen. Literatura lanak idazteko amaigabeko iturria izan da urteotan etxe orratzen hiria Garaterentzat eta istorio garratz eta gordinak nagusi diren ipuin bilduma osatu du. “Egungo New Yorkek pairatzen duen egoera kontrajarria eta paradoxikoa da. Munduko hiririk



boteretsuena da, baina bakardadea sufritzen duen jende askorekin egin dut topo. Bestalde, hilketak, mafiaren maltzurkeria, polizia ustelak, prostituzioa, drogak, bahiketak... New Yorken bizi izan garenok makina bat aldiz esan dugu bertan munduko gauzarik onenak eta txarrenak aurki daitezkeela. Nik nire inguruan jasotako bitxikeriei buruz berba egin dut”. Munduko hiri erraldoi asko ezagutu ditu idazleak bere bizitzan, baina guztietan kilikagarriena, pizgarriena eta aberatsena New York iruditu zaio. Idazterako orduan Euskal Herriko ekialdeko eta mendebaldeko euskalki oro kontuan hartu du, “Euskara batua aberastuko bada, euskalki guztien ekarriekin izango baita” idazle elgoibartarraren aburuz.



Ainhoa Mendibilek jantzi zuen txapela Soralezeko Bertso Paper Lehiaketan

Ainhoa Mendibil elgoibartar gazteak irabazi du Soralezeko Udalak eta Ibilixan Ibilixan Bertso Eskolak antolatutako Soralezeko Bertso Paper Lehiaketa. Bertsozale elgoibartarra 16 urtera artekoen mailan nagusitu da “Bakardadeari azken berbak” bertso sortari esker. Sari banaketa joan zen urriaren 30ean egin zuten San Andres elkartearen eta bertso afari batekin jantzi zuten sari banaketa ekitaldia. Irudiak txapeldunak bere bertsoak jendaurrean abestu zituen ueña harrapatzen du.

“Behin batean... Gabonak” txikienak euskaraz idaztera zaletzeko lehiaketa berria

Atxutxiamaika Aisialdi Taldeak Lehen Hezkuntzako ikasleen artean euskaraz idazteko zaletasuna sortzeko eta bultzatzeko lehiaketa antolatu du. “Behin batean... Gabonak” da lehiaketaren izena eta hiru maila eta hainbat sari izango ditu: Marrazki hoberena egiten duenak (LH 1-2) euskal jolas sorta jasoko du eta euskal musikako CD bat eta komikia 2. sarituak. Olentzerori Gutun irabazlea idazten duenak (LH 3-4), berriz, “Matrakan” euskal jolasa jasoko du eta “Zeu idazle” idaz-jolasa eta komikia 2. sailkatuak. Azkenik, “Sekretu bat daukat” (LH 5-6) gaiarekin ipuinik onena osatzen duenak Disc-man bat eskuratuko du eta jolasa eta komikia 2. sarituak. Epaimahaia Urruzuno Literatur Taldekoek osatuko dute. Sariak Olentzerok banatuko ditu abenduaren 24an, Plaza Handian. Lanak jasotzeko epea abenduaren 3a da, Elgoibarko Izarran (Ubitarte 4).

Joseba Ramirez ipuin kontalaria Udal liburutegian

Joseba Ramirez ipuin kontalaria donostiarra 3 eta 10 urte bitarteko haur elgoibartarren irakurtzeko zaletasuna suspertzen saiatu zen joan zen azaroaren 9an, Udal liburutegian. Ipuinak kontatzeaz gain, gitarren doinuak erabili zituen gaztetxo andanaren arreta bereganatzeko eta hauen aurpegietara begiratuta behintzat, badirudi bere helburua bete-betean egi bihurtu zuela.



Futbola, 2004/2005 denboraldia

C.D. Elgoibar Elkarteko taldeen aurkezpena



1. Erregionala

Tente, ezkerretik eskumara: Iker Arrillaga, Iñigo Arostegi, Aitor Gurrutxaga, Asier Atrio, Asier Mujika, David Morais, Ion Garcia, Iñigo Otero, Imanol Larrañaga (2. entrenatzailea) eta Pedro Santiago (entrenatzailea).

Makurtuta, ezkerretik hasita: Asier Elustondo, Antton Ecenarro, Mikel Ruiz, Mikel De Pablo, Unai Etxeberria, Carlos Feijo eta Haritz Calvo.

Argazkian falta dira: Mikel Armendia, Ion Larrañaga, Unai Kanala, Anton Mendizabal, Ivan Martinez, Ander Zulaika, Asier Jauregi, Mikel Bilbao eta Andoni Ulazia (delegatua).

Neskak

Tente, ezkerretik eskumara: Alberto Hernandez (entrenatzailea), Amaia Epelde, Saioa De Pedro, Nerea Rodriguez, Ane Izeta, Lucia Dieguez, Maider Diez, Eneritz Arrillaga, Marta Diez.

Makurtuta, ezkerretik hasita: Maider Rejas, Nagore Lueches, Enara Gorostiza, Miren Ramos, Maitane Huidobro, Ione Loiola, Amaia Zabaleta.

Argazkian falta dira: Laura Vegas, Irune Martinez, Ainhoa Zapata, Desire Lopez, Lorena Babarro eta Roberto Fernandez (2. entrenatzailea)



Kadeteak

Goiko ilaran, ezkerretik hasita: Andres Muñoz, Aitzol Arrizabalaga, Unai Herrero, Asier Urkiri, Ander Martin, Jorge Martinez, Ion Gabilondo, Mikel Hidalgo, Javi Salazar eta Adrian Chico.

Makurtuta, ezkerretik eskumara: Andoni Gomez, Josu Rodriguez, Mikel Arosa, Juan Martinez, Antxon Segundo eta Endika Etxaniz.

Argazkian falta dira: Igor Ulibarri eta Patxi Larrea.



Argazki digitalak estreinakoz lehian Morkaikoren X. Argazki Lehiaketan

Karakatera igoera eta Bilboko mendietara irteera

Morkaiko Mendizale Elkarteak mendiaren inguruan urtero antolatzen duen Argazki Lehiaketak 10 urte beteko ditu. Garai berrietara moldatzeko asmoz, berrikuntza nagusi bat izango du aurtengo edizioak, argazki digital onena aukeratzeko lehiaketa, hain zuzen ere. Honako baldintzak bete beharko dituzte partehartzaileek: gaia mendia; neurria librea; gehienez lau, 2004. urtekoak, koloretan nahiz zuri-beltzean; argazkiak non eta noiz atereak diren jarri beharko da izenburua eta egilearen izen eta kontakturako telefono batekin. Argazki digitalak JPG formatoan (moldaketarik gabe); morkaiko@morkaiko.euskalnet.net helbidera bidali daitezke (2Mb baino gutxiago) edo CD batean Errosario kaleko egoitzara eramanez ohiko ordutegian. Aurkezteko azken eguna abenduaren 2a izango da. Argazki onenak 125 euro jasoko ditu, 100 euro ikusleek aukeratutakoak eta 75 euro argazki digital onenak. Argazki guztiakin erakusketa abenduaren 10etik 18ra izango da Kultur Etxeko sotoan. Gabonetarako, berriz, Morkaikoren web gune berrian ikusi ahal izango dira argazki digitalak.



Hurrengo ekintza eta irteerak

Karakatera Igoera antolatzea da Morkaikoren hurrengo ekintza, azaroaren 20an. Hurrengo irteera, berriz, azaroaren 27an, izango da. Mendia eta hiria uztartuko ditu, Bilbo inguruko mendiak ezagutzeko abagunea eskainiko delarik. Audio ondoko Aretatik irten eta Kamaraka eta Ganekogortako tontorrak pasa ostean, Pagasarrira iritea da asmoa. Handik, Bilbo handia parez pare dela, Zazpi kaleetara jaitsiko dira. Pare bat txikito hartu ondoren, Atxurin tren hartu eta etxera buelta. 18 km-ko luzera du ibilaldiak eta bost orduko iraupena. Irteera 8:30an izango da Plaza Handitik.

Lau sanmigeldar lehen bost postuetan Euskadiko Hiru Txirlo Bolo Txapelketan

Angel Ibarluzea sanmigeldarrak ezin izan dio Aiaz lortutako txapelari eutsi eta txirlo bakar baten aldeaz izan bada ere, amore eman behar izan du Bittor Astigarraga azkoitiarraren aurrean. Azkoitiarra 18 txirlo botata iritsi zen San Pedroko bolatokian jokatu zen azken jardunaldira eta elgoibartarrak, berriz, 16 txirlo bota zituen aurreko hiru saioetan. San Pedron Txurruka taldeko Bittor Nuñez nagusitu zen 6 txirlorekin eta sailkapen nagusirako lehian, Ibarluzeak 4 txirlo bota zituen eta 3 txirlo Astigarragak. Hortaz, txirlo bakarreko aldeaz jantzi zuen txapela azken honek. Unai Loiola sanmigeldarra geratu da 3. postuan 18 txirlorekin eta laugarren eta bostgarren postuak ere auzokideentzat izan dira, Imanol Osoro eta Jose



Irustarentzat, hain zuzen ere. Bestalde, Angel Ibarluzea, Gipuzkoako 2004. urteko bolari onena aukeratu zuten.

EMAITZAK

Futbola

Elgoibar **0** – Zumaia **4** (Neskak)
Elgoibar **2** – Aretxabaleta **0** (Inf. B)
Elgoibar **3** – A. Ondarroa **0** (Kad.)
Gernika **1** – Haundi **1** (3. maila)
Segura **2** – Elgoibar **1** (1. erreg.)
Olarizu **2** – Elgoibar **2** (Jub.)
Zarautz **1** – Elgoibar **A 1** (Inf. A)
Almen **0** – Elgoibar **0** (Neskak F-8)

Esku pilota

Lagunak **16** – Anaitasuna **22** (Jub. banaka)
Lagunak **22** – Lazkao **15** (Nag.)
Anaitasuna **22** – Lagunak **13** (Jub.)
Hernani **30** – Lagunak **25** (Jub. nesk. Palaz)

Areto Futbola

Kenci Elg. **5** – GSI Bilbao **9** (Nazional B)
Escolapioak **4** – Lanbroa **3** (1. maila)
Colegio Aleman **2** – Toletxe **3** (Jub.)

Eskubalola

Pagoaga Sanlo **15** – Zarautz **22** (Kad. nesk.)
Cometel Sanlo **14** – Zarautz **25** (Jub. nesk.)
Antt Sanlo **19** – Pulpo **23** (Sen. mut.)
Sanlo **33** – Elorrio **13** (Sen. nesk.)
Ald. Zarautz **26** – Tecnomeca Sanlo **22** (Kd. mt.)
Gatz Museoa **26** – Pneumax Sanlo **28** (Jb. mut.)
Dam-Lea **25** – Tecnifuelle **25** (Sen. mut.)

Idarraga kafeak 8. sarria

HAUNDIko jokalaria erregularrena 04/05
JOKALARIA PUNTUAK

1- J. Igartua	19
2- Mikel Calvo	15
3- Loren	12
4- Ibai Gonzalez	10
5- Navarrete	10
6- Javi Gomez	9
7- Etxabe	8
8- I. Oruesagasti	8
9- M. Elgoro	8
10- Iribar	8

AGENDA

Eskubalola, Kiroldegian

Zapatua, 13
16:00 Pneumax Sanlo – Urola (Jub. mut.)
17:30 Tecnifuelle – Escolapios (Sen. mut.)
Domekia, 14
11:00 Sanlo – Ereintza (Inf.nesk.)

Areto futbola, Mintxetan

Zapatua, 13
12:30 Toletxe – Lasarte (Jub.)

Futbola, Mintxetan

Zapatua, 13
16:30 Haundi – Indautxu (3. maila)
Domekia, 14
10:00 Elgoibar – Eibar (Aleb.)
12:30 Elgoibar- Tolosa (Inf. A)
16:30 Elgoibar – Casco Viejo (Jub.)



Langai
Euskal Lan Zerbitzua

Debarako inkestatazaileak behar dira. Erref. 162004009211

Mendaroko enpresak soldadorea behar du. Erref. 162004008691

Arrasateko enpresak mekanikoa behar du. Erref. 162004009585

Mutrikuko enpresak fisioterapeuta behar du. Erref. 162004009506

Bergarako enpresak xake irakaslea behar du. Erref. 162004009517

Elgoibarko enpresak ingeles irakaslea behar du. Erref. 162004009502

Elgoibarko enpresak klinikako laguntzailea behar du. Erref. 162004009414

Debako enpresak etxez etxeko laguntzailea behar du. Erref. 162004008068

Arrasateko enpresak kazetaria behar du. Erref. 162004009546

Bergarako enpresak ingeles irakaslea behar du. Erref. 162004009460

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) 943 74 80 19 edo IMH (Nora Ramón) 943 74 41 32 telefonora. Lan eskaintza guztiak www.lanbide.net helbidean datoz.

Lana

ESKAERA

◆ Emakumea umeak, nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 634 93 24 26

◆ Lau neska portalak, komunak... garbitzeko prest. Deitu lehenbailehen. ☎ 666 09 02 01

◆ Pertsona arduratsua eraikuntzan, soldaduran... lan egiteko prest. Premiazkoa. ☎ 943 53 21 82/661 22 51 49

◆ Sistema informatikoen administratza ikasi duen pertsona eskaintzen da lanerako. ☎ 943 19 24 96

◆ Emakumea garbiketa lanak egin, haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 699 60 91 90

◆ Emakumea etxeko lanak egiteko prest. ☎ 637 93 24 26

◆ Emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. 10:30etik 17:30era, asteburuak barne. ☎ 626 91 49 04

ESKAINZA

◆ Sukaldean lan egiteko jendea behar da. ☎ 943 12 12 62

◆ Asteburu eta jai egunetan gasolindegian lan egiteko pertsona bat behar da. ☎ 943 74 02 41

◆ Tabernako sukaldean asteburuetan lan egiteko emakumea behar da. ☎ 615 72 34 80

Etxebizitzak

◆ Etxea salgai Mendaron. Altzariz jantzi berria. Dena kanpora. Prezioa adosteko. Aukera paregabea. ☎ 625 26 09 39/943 75 62 05

◆ Pisia salgai Mendaron. Berria. Garaaje eta trasteroarekin. Prezioa adosteko. ☎ 686 045 321/943 74 15 21

◆ Pisia salgai Mendaron. Bi logela, egongela, sukaldia, komuna, balkoia. 57m². ☎ 943 03 36 43/666 87 47 37

◆ Etxea hartuko nuke alokairuan. Premiazkoa. ☎ 687 11 70 22

◆ Etxea salgai Basarten. Bi logela, bi komun, egongela eta sukaldia. ☎ 620 549 500

◆ Soraluzen etxe berritua salgai. Garaajea, entreplanta. Komunak eta sukaldia amueblatuta. 144m². ☎ 615 77 99 20

◆ Etxea salgai San Frantzisko kalean. 70m². 3 logela, egongela, sukaldia eta galeria, komuna eta ganbara. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ 665 73 90 69

◆ Etxea salgai Eibarren. Bi logela, egongela, sukaldia, komuna eta despentsa. Dena kanpora begira. Garaajea aukeran. ☎ 625 59 44 46

◆ Apartamentua eta txokoa salgai Ean (Bizkaia). Aukera ezin hobea. ☎ 639 47 47 39 (Manolo)

◆ Logela alokatzen da. ☎ 943 74 18 81

◆ San Frantzisko kalean bi etxebizitza alokatzen dira. ☎ 690 75 96 96

◆ Etxea salgai Errosario kalean. 3 logela, egongela, sukaldia eta despentsa. Altzariekin eta berogailu zentrala. ☎ 943 74 02 68/699 17 98 72

◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. 3 logela, egongela, sukaldia, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ 636 22 31 42

Lokalak

◆ Gazte koadrila batek lokala hartuko luke. ☎ 660 69 53 03 (16:30-22:00)

◆ Errosario kalean lokala alokatzen da. ☎ 690 75 96 96

Garajeak

◆ Garaajea salgai Pista Beltzean. Bi kotxe sartzeko tokia. Irekia. 12.000 euro. ☎ 943 74 20 34

◆ Garaaje itxia alokatzen da Santa Klaran. Merke. ☎ 943 74 35 43

◆ Garaajea salgai Madalatik gertu. ☎ 943 74 24 06

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Salerosketak

◆ Ford Sierra 2.0 cl autoa salgai. Egoera onean. SS-7427-AC. ☎ 943 74 43 98

◆ Opel Kadett, 1.400 salgai. Ekonomikoa. ☎ 652 77 11 94

◆ Renault 11 autoa salgai. Gorria. 600 euro. ☎ 943 74 28 40

◆ Citroen Xsara Picasso 2.0 HDI salgai. 2002koa. Beti garaiean. ABS, 4 airbag, klimatizadorea, kristal dindatuak... ☎ 628 507 951

◆ MIRO DC 30+ bideo kapturatzailerak jeta eta eskuliburua gaztelezer eta Adobe Premiere 5.1 salgai. ☎ 943 11 98 60/630 15 66 01

◆ L.G. markako retroproiektorea salgai. 44 pulgada. 10 DVD pelikula opari. 2.500 euro, negoziagarria. ☎ 943 74 34 23/627 67 93 52

◆ Pioneer markako anplifikadorea, disko giratzailea, 40 disko, 80Wko bi baffle salgai. 200 euro. ☎ 943 74 34 23/627 67 93 52

◆ Bikientzako kotxe-silla salgai. Inglesina markakoa. (aulkia, grupo 0, zakuak...) ☎ 636 12 95 43 (Jaione)

◆ Play Station 2 salgai. 2 mando, 2 memoria (8MG), motxila, jokoak... 180 euro. ☎ 696 89 60 88

Partikularrak

◆ Administratza eta enpresa zuzenbideko 2/3 ikaslek matematika klaseak hartuko lituzkete. ☎ 649 39 36 17

◆ Ingeleseko klase partikularrak ematen dira. ☎ 656 53 33 90

◆ Bibolin eta pandero klaseak ematen dira. ☎ 656 77 42 15 (Amaia)

Bestelakoak

◆ Eraztuna galdu dut. Urre zuria eta hori kolorekoa. Ezkontza eraztuna da, sentimentala. 24-4-04 data dauka grabatuta. ☎ 636 35 56 31

◆ Bi hilabeteko cocker txakurrak oparitzen dira. Bakunatuta, oso politak. ☎ 600 42 62 47

◆ Nafarroa Oinez-era joan zen autobusean 3 giltz agertu dira. Jabea pasa da dila Elgoibarko Izarritak.

Agurrak



♦ Kaixo **prexioxi!** asteazkenean urtetxo bat bete zenuen eta dagoeneko oso gutxi falta zaitzu oinez hasteko. Neska handia egin zara! zorionak ikaslaguntxoen partez.



♦ Zorionak **potxolita**, zure 7, urtebetetzean. Asteartea iritsi eta zurekin ospatzeko zain gaude. Muxu handi bat familiakoen partez.



♦ Zorionak **Zorione**, bihar, hilak 13, 3 urte egingo dituzulako, eta baita osaba Bittor-i ere, astelehenean bere eguna delako. Etxekoen, eta bereziki, Aitor, Maier, Ainhoa eta Julenen partez.



♦ Zorionak **Sabas**, hilaren 8an, 28 urte egin zenituelako. Ama eta arrebaren partez, muxu handi bat.



♦ Zorionak **Javier Oregiri**, hilaren 3an, 6 urte egin zituelako. Muxu handi bat familiakoen partez.



♦ Zorionak **Haritz Azpiazuri**, 3 urte egingo dituelako. Gurasoen, Nagore, Julen eta bereziki, amama Paularen partez.




♦ Zorionak **Aritz Cerezo**, gaur, hilak 12, 9 urte egin dituzulako. Etxekoen partez.



♦ Zorionak **Estefaniri**, gaur, hilak 12, 12 urte egin dituelako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak **Miren**, bihar 15 urte beteko dituzulako. Muxu asko koadrilakoen partez.



♦ Zorionak **Imanol**, gaur, hilak 12, 6 urte egin dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



♦ Zorionak **lñigo**, hilaren 11n, 6 urte egin zenituelako. Familiakoen, eta bereziki, Maialenen partez.

♦ Zorionak **Futbol 8 taldeko neskei**, Gazteizen kontra irabazteagatik. Jarraitu horrela!

♦ Zorionak **Jesus Mari Agirretxeri**, DBH3ko ikasleen partez.

♦ Zorionak **Ion Rodriguez**, hilaren 11n, urteak bete zenituelako. Gurasoen eta arrea Eiderren partez.

BEKAK

Graduondoko prestakuntza

Caja Madrid Fundazioak graduondoko ikasketak atzerrian egiteko 70 beka eskaintzen ditu. Ikasketak arloak honakoak dira: Ekonomia, Politika Zientziak, Soziologia eta Zuzenbide Publiko eta Konstituzionala. Baldintzak: goi-mailako titulazioa izatea, ikasketak egingo diren herrialdeko hizkuntza, ahozkoa nahiz idatzia, ondo jakitea, eta inolako beka edo dirulaguntzaren onuradun ez izatea. Informazioa eta oinarriak: www.fundacioncajamadrid.es. Epea: abenduak 12

TANDEM beka

Espainiako Kanpo Gaierako eta Lankidetzarako Ministerioak, 2004. urterako ondarea kudeatzeko beka eskaintzen ditu. Beka hauek "MAEC-AECI beka" delako programaren deialdian sartzen dira eta 2005eko udarako eta 2005-2006 ikasturterako Espainian eta atzerrian kultura-lankidetzako egonaldiak egiteko dira. Informazio gehiagorako: www.becasmae.es. Epea: abenduak 31

LEHIAKETAK

Arte plastikoak

Ordiziako Udalak Arte Plastikoko II. Goiart 2004-Ordizia Saria antolatu du. Bertan Euskal Herrian jaio edo bizi diren artistek parte har dezakete. Egile bakoitzeko gehienez ere bi obra onartuko dira, tamainari, teknikari, aurkezpenari edo gaiari dagokion baldintzarik gabe. 6.000 euro saritan. Epea: abenduak 17

IKASTAROOK

Mendiko orientazioa

Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak mendiko orientazioko eta GPSari buruzko ikastaroa antolatu du federatuta daudenentzat. Ikastaroa azaroaren 20an eta 21ean izango da Andoainen eta helburuak honakoak dira: koordenatu desberdinak dituzten mendiko plano eta mapak interpretatzea, naturan GPSa kokapen eta orientazioko tresna gisa erabiltzen ikastea. Epea: plazak bete arte

LANA

Administrari Laguntzailea

Oñatiko Udalean Administrari laguntzaile bat kontratatuzko oposizio-lehiaketa. Baldintzak: eskola-garduatua, LH I edo titulu baliokidea eta euskarako 3.hizkuntza eskakizuna izatea. Epea: azaroak 29

12 BARIXAKUA

19:00 MARGO ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

Egilea: Anton Urreisti
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Azaroaren 28ra arte



13 ZAPATUA

13:00 SINADURA KANPAINA

Euskal preso politikoen Euskal Herriratzea
Plaza Handian
Antolatzailea: Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimendua

14 DOMEKIA

12:30 GAIKO ETA ELBARRIEN BIZIKIDETZA

San Bartolome parrokian

18 EGUENA

19:00 HITZALDIA

Gaia: "Euskara lardaskatzeko manerak"
Hizlariak: Kike Amonarriz, Asisko Urmeneta eta Antton Olariaga
Kultur Etxeko Sotoan



19:00 HERRI ASAMBLADA

Gaia: "Ostegunetako azokaren etorkizuna"
AISSko lokalean (San Ignazio 1)
Antolatzaileak: Sindikatuak eta azokako langileak

19 BARIXAKUA

19:30 SANTA ZEZILIA KONTZERTUA

I. Bereziartua Musika Eskolako auditorioan

22:15 KONTZERTUA

Debabarrenako Jazz Jaialdia
Taldea: "Tres Hombres"
Herriko Antzokian

22:15 ELGOIBARKO XAKE TXAPELKETA

Pista Beltzeko lokalean

OSPAKIZUNAK


Gaixo eta elbarrien bizikidetza

Urtero legez eta Elgoibarko parrokiako osasun pastoraltzak antolatuta, Elgoibar, Azpeitia, Azkoitia, Zumaia, Zarautz, Orio, Getaria eta Zestoako gaixo eta elbarriak elkartuko dira Elgoibarren, elkarren arteko bizikidetza ospatzeko. Azaroaren 14an, domekan, izango da. Egitaraua: 12:30ean meza San Bartolome parrokian eta bazkaria ondoren Sigma jatetxean. Gutxi gorabehera 100 lagun etortzea espero dute antolatzaileek.

POLITIKA

Gatazka konpontzeko proposamen politikoa

Igande honetan, Azaroak 14, arratsaldeko 17.00etan Donostiako Anoeta Belodromoan Ezker Abertzaleak publiko egingo du Gatazka konpontzeko Proposamen Politiko Berritua. "Orain bakea, orain herria" lemapeko ekitaldi honetan Proposamen honek dituen bi eginkizun nagusiak aurkeztuko dira: gatazka konpontzeko prozedura eta Euskal Herriaren eraikuntzan aurrera egiteko ildoak. Ekitaldira joateko autobusa domeka honetan, hilaren 14an irtengo da Plaza Handitik 16:00etan. Interesatuek ohiko tokietan eman dezakete izena.



"El señor Ibrahim y las flores del coran"

Zuzendaria: Francois Dupeyron.

Antzezleak: Omar Sharif, Pierre Boulanger, Gilbert Melki.

Europa guztian zehar gertatzen zen moduan 60. hamarkadako Paris bizitzaz betea zegoen. Aldaketa garaia zen eta gizarte eta kultura aldaketak iragartzen zituen energia berezi bat sumatzen zen. Testuinguru honetan elkar ezagutuko dute haur judutar batek eta musulman zahar batek Pariseko langile auzo batean. Momo (haur judutarra) umezurtza da eta kaleko emagalduen artean hezi dute. Ibrahim jaunaren (musulman) denda zaharrea erosten ditu elikagaiak. Honek dirudiena baino gehiago daki eta Momoren lagunik onena izatera iritsiko da.

ALDARRIKAPENAK

Presoen aldeko sinadura kanpaina

Zapatu honetan, hilaren 13an, Euskal Herri osoan bezala Elgoibarren ere sinadura kanpaina nazional bati ekingo diote euskal preso politikoen Euskal Herriratzea aldarrikatzeko. Eguerdiko 13:00etan jarriko da mahaia Plaza Handian. Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak elgoibartar guztiak animatu nahi ditu sinatzera.

KIROLAK

2004ko Xake Txapelketa

Zubi Ondo Xake Taldeak antolatzen duen Elgoibarko Xake Txapelketa azaroaren 19an, barixakuan, hasiko da taldeak Pista Beltzean duen lokalean. Bertan, federatu zein federatu gabeko jokalariek parte hartu ahal izango dute. Partidak 30 minutukoak izango dira gehienez. Lau edo bost astean zehar jokatu da txapelketa (parte hartzaile kopuruaren arabera) 22:15etatik aurrera. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko honako telefonora deitu: 630731132 (Mikel; 22:30-23:00), edota bertan agertu txapelketa egunean.

LEHIAKETAK

Ipuin Lehiaketa

Mendaroko Udalak Gabonetako Euskarazko X. Ipuin Lehiaketa antolatu du. Hiru maila izango ditu lehiaketak: A maila (San Jose Ikastetxeko OHO. 5-6. mailako ikasleak), B maila (Debabarrenako ikastetxeetako DBH 1-2 mailako ikasleak) eta C maila (Debabarrenako ikastetxeetako DBH 3-4 eta Ertain mailetako ikasleak). Lanak eskutan edo postaz jasoko dira helbide honetan 2004ko abenduak 10 arte: Mendaroko Udala (Kultura Saila), Herriko Enparantza 1. 20850 Mendaro. Informazio gehiago Mendaroko Udalera joz. Sari banaketa ekitaldia abenduaren 23an, 19:00etan izango da Mendaroko udaletxeko Udalbatza aretoan.

OSASUNA

Odol ateraldiak Mendaron

Datorren azaroaren 19an odol ateraldi berezia izango da Mendaron, 20 urte beteko baitira bertako odol emaleek odol-ateraldiekin hasi zirenetik. Ohiko lekuan izango da, Ikastolako gimnasioan. Urte guzti hauetan jendearen erantzuna primerakoa izan dela adierazi digute antolatzaileek eta jendea bertara joan eta odola ematera animatzeko deialdia luzatzeko eskatu digute. Arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara egongo da odola emateko aukera.



ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"El Mito Bourne"

12, zapatua: 19:30-22:15
13, domekia: 19:30-22:15
14, astelehena: 22:15

"Shin Chan, erreskate lana"

13, domekia: 16:30

"El señor Ibrahim y las flores del Coran" (Z.K.)

18, eguena: 22:15

EIBAR, Unzaga

"Di que sí"

12, barixakua: 19:30-22:15
13, zapatua: 17:00-19:30-22:30
14, domekia: 17:00-19:30-22:30
15, astelehena: 19:30-22:15
16, martitzena: 19:30-22:15
17, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, Rialto

"El Lobo"

12, barixakua: 19:30-22:15
13, zapatua: 17:00-19:30-22:30
14, domekia: 17:00-19:30-22:30
15, astelehena: 19:30-22:15
16, martitzena: 19:30-22:15
17, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emandien aldaketan erantzukizunik.



"El mito de Bourne"

Zuzendaria: Paul Greengrass.

Antzezleak: Matt Damon, Franka Potente, Brian Cox.

Iragana atzean laga zuela uste zuen Jason Bourne (Matt Damon) ezkutuko agente bereziak, baina ez da horren erraza. Amnesia ez da guztiz sendatu eta oraindik ere tarteka itzultzen zaizkio ezkutuko agentea zen garaiko oroitzapenak. Doan lekura doala, inork ezagutu, salatu eta etsaiak bera hiltzen saiatuko diren beldur da. Jadanik nekatuta dago sagua eta arratoiarena egiteaz, baina badirudi hori dela bere patua, dirudienetz etsai asko egin baitzituen iraganean dirudienetz.

ZINEA



A

ste honetako erretratu zaharra **Julen Zabaletak** laga digu. 1943. urtean Arrasateko Mahala futbol zelaian ateratako argazkia da. Egun honetan, Elgoibar eta Mondragon taldeak izan ziren aurrez aurre. Partidu gogorra izan zen, bi talde hauen arteko beste norgehiagoka guztiak bezalakoxea. Garai hartan, aldagelak errepide alboko etxe batean zeuden, eta anekdota moduan esan dezakegu, jokalaria errepidean zehar joaten zirela futbol zelaira, tropelean euren boten takoekin sekulako zarata atereaz. Garai latzak izan ziren haiek, gerra garaia, baina orduan ere gogor jokatzen zen futboleant. Gogora ditzagun zeintzuk osatzen zuten urte hartan Elgoibarko taldea:

Goiko ilaran, zutik, ezkerretik eskumara: **Manolo Riaño** (†), **Inazio Barrenetxea**, **Antobio Arriola** (†), **Arcadio Goiarzun**, **Sabin Gorostiza** (†) eta **Antonio Unzueta**.

Makurtuta, ezkerretik eskumara: **Arturo Zubiaurre**, **Anakleto Salaberria**, **Julian Jainaga** (†), **Pedro Arosa** eta **Gabriel Gabilondo** (†).



ESKERTZA

2004ko azaroaren 3an, 60 urte zituela hil zen,
MANUEL MUGURUZA UGARTEBURUren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ETXEBIZITZEN SALMENTA

ETXEBIZITZAK
APARTAMENDUAK
DUPLEXAK
LORATEGIDUN DUPLEXAK
GARAJEAK
MERKATARITZA LOKALAK



MAALA
BIZIGUNEA



Salmenta bulegoa:
Bernardo Ezenarro, 2

 **943 740 858**

Eraikitzailea:



Sustatzailea:

**URTAGO
PROMOZIOAK, A.I.E.**

AZKEN ETXEBIZITZAK salgai


Residencial Mirador
Santa Klara

Neinor 

NEINOR **Azkoitia**
Julio Urquijo Etorbidea, 10
20.720 AZKOITIA

 **943 852 411 - 943 317 511**

- 3 logelako etxebizitzak eta
4 logelako duplexak behelalde estaliarekin
- Terraza eta lorategi handiak. Garaje itxiak. Leku eguzkitsua
hegoaldera begira eta bista panoramikoak.



Z A Z P I
I N F O R M A T I K A



**Zure arazo informatikoak
konpontzen ditugu!!!**



- Ordenagailuen salmenta: PCak eta portatilak
- Osagai informatiko eta pieza solteen salmenta
- Bulegorako materiala: CDak, DVDak, tintak, folioak, boligrafoak,...
- Kontsola, bideojoko eta PCrako jokoak
- Ordenagailu eta osagaien konponketa: (faxes, inpresora, monitoreak...) dendan eta etxean

P. Muguruza 8, behea
Tel./Faxes: 943 74 37 87
E-posta: zazpi@telefonica.net

Aprobetxatu zaitez
KZ Mikroenpresentzako laguntzetaz.